



Herriek Bere Eskola

Herriek Bere Estola – EHBE – Nazioarteko informazio buletina
25. alea | 2007ko Abendua/A | Ale berezia: Pécresse legea
nazioartea@euskaleskola.org | <http://www.euskaleskola.org/>

PÉCRESSE LEGEA: SARKOZYREN ISPIRITUA PAPEREAN

Frantziar Estatuko Gobernuak uda honetan argitaratu duen Pécresse Legeak hautsak harrotu ditu berriro ere betiereko krisian bizi den estatu horretan. Legeak proposatzen duena ez da berria eta guztiz bat dator Bologna Prozesuak ezartzen dituen helburuekin, baina Sarkozyren gobernuak egin dituen beste hainbat aldaketarekin gertatu den bezala krisi larria sortzen dute: frantziartasunaren adierazgarria den “ongizatearen estatua” hankaz-gora jartzen dute.

Valerie Pécresse frantziar Unibertsitate eta Ikerketa ministra da. Bere lana Bologna Prozesua aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa zen azken aldaketa bat egitea zen (aurrekoa LMD eta Ikerketarako legeekin egin zuten). Horretarako beharrezkoa zen Unibertsitateek duten izaera juridikoa eta jendartean duten papera eraldatzea. Baina aldaketak egiterakoan Unibertsitateko esparrutik at atera da Pécresse eta Lanbide Eskolak ere seriooki eraso ditu. Aldaketa horiek aurreko urtean CPEn aurka ez bezala mobilizazioen irautea unibertsitateetatik lizeotara igaroarazi du. Gainera mobilizazioak funtzionario ezberdinen grebekin eta trenbideetako langileen greba orokorrarekin batera egin dira, kaosa estatu osoan ezarriz. Euskal Herrian ere nabaritu dira mobilizazioak eta lizeoetatik eta fakultateetatik ekimen ugari prestatu dira.

Baina, zeintzuk dira proposaturiko aldaketak?

Finantziazioa.

Jada ez da finantziazioa zuzenean ematen, baizik eta Estatuak eta Unibertsitatearen artean egindako kontratu baten arabera. Kontratu horretan egindako ikerketak baloratzen dira, euren konpetitibitate mailaren arabera. Modu honetan unibertsitateak eta oro har hezkuntzak izan behar duen helburu nagusia ukatzen dute: herritar kritiko eta jendartean lan egiteko gaituak direnak sortzea. Gobernuak modu honetan unibertsitatei konpetentzia berriak ematen dio, adibidez euren higiezinaren patrimonioa kudeatzea diru gehiago lortzeko bidean (alokairuan, enpresei adibidez). Behar duten gainerako dirua lortzeko unibertsitateak lagun pribatuak lortzera behartzen dituzte eta beraz unibertsitateen finantziazioaren kontrola zuzenean galtzen da.

Gobernua.

Unibertsitateen gobernu organozk guztiz desegiten dituzte. Horien ordez Administrazio Kontseiluak sortzen dituzte, kopuru finko eta mugatu batekin. Bertan kideen %40a arte “kanpo pertsonalitateak” izan daitezke, “ekonomia munduaren” ordezkariak. Gainera unibertsitateko errektorearen (Presidente-Zuzendari Orokor moduan izendatua) eskuetan botere handia delegatzen da. Presidente hau ez da zertan unibertsitateko irakasle edo ikerlari izan behar eta unibertsitatearekin lan hitzarmen bat duen edozein enpresako arduradunetako bat izan daiteke, adibidez. Azkenik hainbat ikasleri sarrera ukatzeko bidea asmatu dute: “orientazio aktiboa”, ikasle konkretuei sarrera galarazteko asmoz.

Ikerketa eta selekzioa.

Ikerketa gaiak finantziazio pribatua behar dutenez azken hau lortze bidean egiten dira aldaketa eta proposamen gehienak. Ikerketa eta irakasleak dirua lortzera bideratzen dira. Sistema honen bitartez bi abiaturako unibertsitate sistema sortzen da. Alde batetik kalitatezko eskaintza kalitatezko ikasleentzat egiten duten unibertsitate goi-finantziatuak eta, bestetik, laburrak diren eskolak ematen dituzten unibertsitate defizitarioak, “orientazio aktibo” egokia jaso ez duten ikasleentzat.

MOBILIZAZIOAK HAN-HEMENKA

Péresse Legea (edo LRU) udan onartu izanak mobilizazioak beranduago egitea ekarri du eta legea behin onartuta hasi dira unibertsitate eta lizeoetako bazterrak nahasten. Baina Azaroan egindako mobilizazio eta grebek dena aldatu dute. Fakultateetan mobilizazioak handiagotzen ari dira eta gainera lizeoetan ere agertu dira lehenengo protestak. Unibertsitatean egon diren mobilizazioetan aspaldiko partez poliziaren presentzia handia egon da, CRSen aldetik sekulako bortizkeria erabiliz (batez ere Nanterreko Unibertsitatean, Paris X).

Azaroaren 20ko mobilizazioetan parte-hartzea CPEkoetan baino handiagoa izan zen, nahiz eta oraingo hauetan batez ere sindikatuen indarra nabarmendu behar den. Sindikatuen Konfederazioak emandako datuetan Parisen 70.000 bildu ziren manifestaldian eta Marseillan 60.000. Poliziak asko jaisten du zifra hau, baina kasu guztietan CPEaren aurkako manifestaldietan baino gehiago esaten dute. Tolosa edo Nantes bezalako hirietan 30.000 lagun bildu ziren manifestalditan eta Baionan sindikatu eta poliziek bat egiten duten 5.000 pertsona inguru egon zirela esaten. Harrigarria, batez ere Pauen bildu ziren beste 10.000 gehitzen badizkiogu. Poliziak, gainera, interbentzioak egin zituen Lyon II, Paris VII, Nantes eta Grenobleko unibertsitateetan.



INFORMAZIO GEHIAGORAKO LOTURAK

Informazio gehiagorako:

www.jcr-red.1901.org/

http://www.jcr-red.1901.org/IMG/pdf/RED_88web.pdf

http://www.jcr-red.1901.org/IMG/pdf/RED_86-web.pdf

<http://www.jcr-red.1901.org/spip.php?article988> (Mobilizazioen zifrak)

<http://www.jcr-red.1901.org/spip.php?article1068> (A20 aurreko datuak)

<http://www.jcr-red.1901.org/spip.php?rubrique3> (Kronika orokor bat)

<http://firgoa.usc.es/drupal/node/4166>

http://www.democratie-socialisme.org/article.php3?id_article=1292

Informazio ofiziala:

<http://www.recherche.gouv.fr/cid20465/aux-etudiants-je-veux-dire.html> (Ikasleei gutuna)

<http://www.nouvelleuniversite.gouv.fr/-forums-nouvelle-universite-.html>

<http://www.nouvelleuniversite.gouv.fr/>

http://www.nouvelleuniversite.gouv.fr/IMG/pdf/interloiNouvUniv_nouvelU.pdf (Liburuxka ofiziala)

Irudiak eta bideoak:

<http://www.youtube.com/watch?v=k2dkMMoAG1M> (Caen)

http://www.youtube.com/watch?v=OMAYwN_5DAQ (Baiona)

<http://www.youtube.com/watch?v=3uan9MrRrEQ&> (Baiona)

<http://www.youtube.com/watch?v=ofYr1W4Po2c> (Nanterre)

<http://www.youtube.com/watch?v=ad7Q3Msrw7s> (Paris)

http://www.flickr.com/photos/hughes_leglise/sets/72157603018693696/ (Pariseko argazkiak, kalitate handia)

<http://www.flickr.com/photos/tags/lru/> (Egile ezberdinen argazkiak)

<http://www.flickr.com/groups/550612@N24/pool/> (Pecresse legearen aurkako argazki taldea)